

DR. ING. AMBROSIO DE ZATARAIN

ZUBIETA, 40-2.º

SAN SEBASTIAN

(GUIPUZCOA)

Donosti'tik, 1972.8.31

Arrasate'ra,

Arizmendiarrieta'tar Jose Maria Apaiz jaunari

Apaiz jaun agurgarri eta adiskide:

Alkarr ikusi eztogula urte batzu igaro dira, baiña alan eta guztiz gogoan izango nauela uste dot.

Esan dostenez' egunotan Ulgor'en injenieruren bat artzekotan dira, eta Urain Mendiburu'tar Jose Mari'ri testen bat egiteko ots egin dotse.

Mutill orren arrebea nere alaba baten laguna eta adiskidea da, eta alabeak berorri karta bat egitea eskatu deust.

Mutilla zelakoa dan jakiteke eneban ezer idatzi gura, eta gaur goizean Joaquín Casella, Injenieru-eskolako artezlariagaz berba egin dot. Mutill oso azkarra ei da, langillea, zerbait esaten daunean piatzekoa, alegia berba egin baiño leen gauzak ondo miratu eta saiatzen dituana; izatekotan ere' apur bat "pesimistia". Metalurgi eta Industri-Organizaziño espezialista tituluak atereak ei dauz.

Casella jauna adiskide ona dot, eta zigur nago enauela engañau. Orra beraz esateko neuan guztia.

Jainkoak bedeinka beza eta lagun egin begio. Emen dauka berorren zerbitzari

*Ay Zatarain' dari Ambrosio*